



CRISTIAN MARTINEZ

Lapurdiko kostalde osoko parte-hartzaileak izango ditu *Gerezien Denbora*-k (goiko argazkian mustraka bat ikus daiteke). Horietako zenbait, bertan bizi diren zuberotarrak dira. Hain zuzen ere, arituko diren zortzi dantzarietatik zazpi zuberotarrak dira. Jean-Pierre Recalt Altzabeheitiko dantza-maisu ospetsuak ere jarriko du aletxoan, hala Beñat Axiariri errejent lanetan laguntzen nola dantzariak prestatzen.

Galdaran sortutako pastoralak

ERREJENTA LANAK egingo dituen Beñat Axiariren nahikari batengatik sortua da *Gerezien Denbora*, Zuberoatik kanpo erakitako lehenbiziko pastoralak. Hiri pastoralak esan diote bere sortzaileek, baita pastoral post-industrialak ere, baina nago adjektiboa zehatzagoa litzatekeela “post” aurrizkia gabe. Ez zaitzala nahasi izenak iradokitzen duen naturarekiko loturak; *Gerezien Denbora* fabrika batean gertatzen den istorioa da, eta bertako langileen borroka du ardatz. Edo ardatzetako bat bederen.

Beñat Axiari kantari eta musikaria da aspalditik, baina bizimodua hortik atera baino lehen Baionako galdategi batean aritu zen behargin hainbat urtez. “Han bizitako esperientzia oso inportantea izan zen enetzat, han ezagutu ditut langileen elkartasuna, lan baldintza txarrak, borroka...”

Galdategiko lana utzirik kantari bilakatu zen Axiari, baina iragan haren lotura sekula eten gabe. Eta bizipen horiek pastoral batean emateko grina piztu zitzaion. Naturalki etorri zitzaion bere istorioa taularatzeko forma hori hautatzea: “Zube-

Izenburua: Gerezien Denbora.
Noiz: Ekainaren 29an, 16:30ean.
Non: Baionako portua, St Bernard kaia (eskuin ibarra).
Errejenta: Beñat Axiari.
Idazlea: Itxaro Borda.

roako kultura biziki inportantea izan da ene bizian, Donapaleukoa naiz baina ene abizena, Axiari, Eskiulatik dator, eta beti ukan ditut harremanak Zuberoa osoko jende askorekin”. Are gehiago, bi pastoraletan aritu izan da, kantuen egile eta gidari.

Axiarik Itxaro Borda lagun minari eman zion asmo horien berri, eta Bordaren erantzuna *Gerezien Denbora* idaztea izan zen, Baionako Postako lantokian greban zirela profutatuz, duela zortzi urte. Azkenik oholtaza gainera eramatea erabakirik, lan gehigarria izan du Bordak: hainbat pasarte erantsi behar izan dizkio jatorrizko bertsoari, “aktoreen energiak jekaldi berriak ekarri baititu”, Axiarik berak esplikatu bezala. Ondorioz, ia hiru oreneko iraupena izango du ekainaren 29an ikusiko den *Gerezien Denbora*-k,

2006an idatzitako hark baino ordubete gehiago.

Izenburua ez da asmatua, bistan dena; *Le temps des cerises* amodio kanta ospetsuaren itzulpena da. Hori ere emango da pastoraletan, Itxaro Bordak euskaraz idatzitako hitzekin. Zergatik gereziak? “Pastoral honen gakoetako bat naturarekiko errespetua izango da”, arrapostu du Beñat Axiarik. Beste gako bat: maitasuna. Langileen borroka, liskar eta greba artean, amodio istorioetarako tarte baitu Bordak idatzitako istorioak. Besteak beste, fabrikako langile baten eta nagusietako baten ezkontzak agerian utziko du pastoraletako urdinen eta gorrien –onen eta txarren– arteko bereizketan ohiko sinplismotik harago joan nahi izan dutela *Gerezien Denbora*-ren sortzaileek, Axiarik iragarri badigu ere alde orotatik pastoral tradizionala –“purua”, haren hitzetan– taularatu dutela. Lapurdin sortu eta estreinatzea bada, agian, nahikoa berrikuntza lehen dosirako. ■

Unai Brea

